



SILVIA PIRIS

**Emantzipazioa feminismorik gabe?
Erakunde mistoetan feminismoa
bazterreko izatetik lehentasunezko izateko
bidea egitea**

Trebakuntzarako Oinarrizko Liburutegi

Silvia Piris
EMANTZIPAZIOA
FEMINISMORIK GABE?

Trebakuntzarako Oinarrizko Liburutegia

2015 - MANU ROBLES-ARANGIZ INSTITUTUA

Egilea

Silvia Piris

silviapiris@gmail.com

Maketazioa

Manu Robles-Arangiz Institutua

www.mrafundazioa.eus

Facebook: Manu Robles-Arangiz Institutua

Twitter: @mrafundazioa

Fotokonposizioa

Bilbograf

Inpresioa

Bilbograf



AURKIBIDEA

Sarrera	7
Feminismoaren izaera emantzipatzaileari buruz	10
Feminismoaren presentzia borondate eraldatzailea duten erakunde mistoetan eta emakume zein feministek berauetan duten partaidetza	20
Gogoetari eta eztabaidari bide ematen jarraitzeko zenbait ideia	27
Oharrak	31
Erreferentziak (liburuak, artikulak, bideoak)	36

SARRERA

Pasa den martxoaren 8an ELA sindikatuak antolatutako ekitaldian du sorburua testu honek. Feminismoarekin eta feminisмотik begiratzeak, eraikitzeak eta ekiteak duen garrantziari buruz egin zen gogoeta ekitaldi hartan; eta erakunde politiko mistoek, duintasuna, berdintasuna eta justizia oinarritzat harturik, gaur egungo sistema eraldatzeko egiazko apusturik egiten duten ala ez eztabaidatu zen. Alde horretatik, gure uste sendoa da nekez egingo dugula aldaketa sakonik eta aurrerapausorik, baldin eta ez badiogu irmotasunez aurre egiten munduko biztanleriaren erdiak emakume izate hutsagatik jasaten duen mendekotasun-egoerari.

Premisa hori aintzat harturik, artikulua honen xedea da gai horri buruz behar-beharrezko eztabaida piztea, eta eztabaida horretarako baliagarri izan daitezkeen zenbait ideia eta proposamen jasotzea. Hala ere, azalpenak ematen hasi aurretik, ideia eta proposamen horien oinarrian dauden bi elementu aipatu nahiko nituzke hasieran: lehenik eta behin, kapitalismoaren aurkako jarrera feminista eta internazionalista esplizitua dut abiapuntu; *kapitalismoaren aurkako*, uste sendoa dudalako kapitalismoaren aurrean bestelako

alternatibak eraiki behar ditugula, baina horietako bakar bat ere ez dela gauzatuko feminismoaren ekarpenak aintzat hartu gabe; alferrik ariko gara modu kolektiboan bizimodu hobego bat sortzeko ahaleginean, baldin eta ez baditugu kontuan hartzen emakumeen beharrianak, interesak eta bizitzak; eta *internazionalista*, uste dudalako mundu mailako subjektu feminista bat izan badela, eta horren alde, emakumeen arteko kidetasuna sendotu behar dugula, feministen arteko aliantzak eta hitzarmenak egin behar ditugula, testuinguru eta errealitate desberdinetan, mende hartzen gaituen sistemari aurre egin ahal izateko. Eta bigarrenik, argi utzi nahi dut ideia hauek ikas-kuntza eta eraikuntza kolektibo baten fruitu direla, partaidetza eta militantziako hainbat forotan kide izan ditudan emakume feminista askorekin (eta zenbait gizonezko lagunekin) partekatutako esperientzia eta bizipenen emaitza.

Aurreko martxoaren 8ko saioaren borondatea zen eta, beraz, testu honena ere halaxe da, erakunde mistoetan beharrezkoak diren eztabaida horietarako erabilgarriak izan daitezkeen zenbait ideia jasotzea, ahalik eta modu pedagogiko eta zehatzenean. Alde horretatik, artikuluaaren asmoa da aztertze geratu diren zenbait gai estrategiko zehaztea, eta ez horrenbeste horietan sakontzea. Bidearen abiapuntua zeda-

rritzea da, beraz, xedea eta, horrenbestez, hiru bloke-tan banatu dut edukia: lehen atalean, feminismoaren izaera emantzipatzaileaz ohartzeko oinarritzko zenbait gogoeta jaso ditut; ondoren, bigarren atalean, gaur egun emakumeek eta feministek erakunde politiko mistoetan duten parte-hartzea zehazten duten elementuak jaso ditut; eta azkenik, hirugarren atalean, eztabaidari eta gogoetari bide ematen jarraitzeko ideia batzuk proposatu ditut.

FEMINISMOAREN IZAERA EMANTZIPATZAILEARI¹ BURUZ...

Hasierako lerrootan feminismoa zer den definitzen saiatzea, oinarrizkoa begitandu daiteke, baina gizartesareei begiratu bat ematen badiegu edo *feminismo* hitza gure eguneroko solasaldietan aipatzen badugu, berehala jabetuko gara zer-nolako beharra dugun, oraindik ere, feminismoa zer den –eta zalantzarik gabe, zer ez den– esplikatzeko. Ez da gure asmoa definizio itxia edo osoa ematea, kontzeptu anitza baita feminismoa, eta etengabe ari baita eraikitzen. Hori dela eta, Victoria Sauren hitzak ekarri ditut lerrootara: “Feminismoa, **mugimendu sozial eta politikoa** den aldetik (...), **emakumeen** kontzientzia hartzea da; talde edo giza kolektibo moduan kontzientzia hartzea eta jabetzea **patriarkatuaren** baitan eta ekoizpen-ereduaren fase historiko guztietan gizonezkoen **zabalke-ta, menderatzea eta esplotazioa** jasan dutela eta jasaten duela; horrek **ekitera bultzatzen ditu**, emakumeen askapena lortzeko eta horri begira gizartean egin beharreko aldaketa guztiak egiteko”².

Definizio horretan, elementu hauek nabarmenduko genituzke: lehenik eta behin, **emakumeon kontzientzia hartzea, banaka zein talde moduan**, ezinbesteko

zutabe gisa. Emakumeok kontzientzia hartzen dugu eta munduan gure egoera eta posizioa zein den ulertzen dugu, gutxiago edo gehiago zer-nolako menderakuntza eta esplotazio egoera bizi dugun jabetzen gara, eta ulertzen dugu *niri gertatzen zaidan hau, beste batzuei ere gertatzen zaiela*. Beraz, kontzientzia hartze kolektiboa da feminismoa.

Bigarrenik, feminismoak egoera horren funtsa azaltzen du, menderakuntza hori *zergatik gertatzen den eta nork eragiten duen* esplikatzen du, eta patriarkatua³ aipatzen du, gizonezkoek emakumeen gain ezarri duten nagusitasunean oinarritutako sistema, gure bizitzen antolaketa-esfera guztietan eragina duen eredu. Gainera, patriarkatu hori bateko eta besteko eredu sozioekonomiko eta testuinguruetara moldatzen da. Izan ere, gizon eta emakumeen arteko desorekak eta botere-harremanak behin eta berriro errepikatu izan dira, eta azaleratu ere hainbat modutara azaleratu izan dira. Gai hori, ikusiko dugunez, bereziki interesgarria da patriarkatu-kapitalismo uztarketa ulertzeko, elkar elikatzen duten menderakuntza-sistemak baitira bi-biak.

Azkenik, feminismoak **ekitera bultzatzen** gaitu, menderakuntza-sistema hori zertan datzan jakitera eta izendatzera, geure burua antolatzen eta sistema indargabetzeko eta sistema horren oinarrian dauden

egitura ekonomiko, sozial, politiko, kultural... guztiak errotik aldatzeko borroka egitera.

Beraz, esan dezakegu menderakuntzaren kontzientzia hartzea, mendea gaudela bistartzea, hori dela feminismoaren sorburua, baita izaera emantzipatzailea duten beste ikuspegi batzuen ere, eta, hain zuzen, antolatzeko, elkar hartzeko eta borrokatzeko sortzen dela. Alde horretatik, feminismoaren proposamena da emakumeen egoera eraldatzea, biztanleen erdiarena, horretarako bizitza antolatzeko modua irauliz, banako moduan eta kolektibo moduan, pertsona guztientzako berdintasuna eta justizia oinarritzat harturik.

Definizio horri gehitzen badiogu emakumeok eta gure gizarteek azken hamarkadetan lortutako eraldaketa sakonei buruzko analisi bat, pentsa genezake feminismoaren izaera emantzipatzaile hori eztabaiaezina dela eta erabat onartua dagoela. Alabaina, ez dira horrela kontuak; izan ere, ikus dezakegu emakumeen menderakuntzan oinarritutako gizarteek **era askotako estrategiak**⁴ jartzen dituztela martxan feminismoa –pertsona askoren iritziz XX. mendeko iraultza nagusia⁵– indargabetzeko, hala nola *ez aitortzea, usurpatzea, erabilera interesatua, lotsagarri uztea edo balioa kentzea*.

Nuria Varelak *Feminismo para principiantes* (Hasiberrirentzako feminismoa) liburuan dio **feminismoa erantzunkorra dela**; *impertinente* hitza erabiltzen du berak gaztelaniaz, RAEk emandako definizioaren arabera *hitzez eta ekintzez enbarazu egiten duena*. Beraz, zalantzarik gabe esan dezakegu feminismoa deserosoa dela, ezarritako ordena ezbaian jartzera datorrelako. Beti esan ohi da feminismoa dela eraso gehien jasaten duen mugimenduetako bat, eta horrek berak agerian uzten du zeinen uzkurra eta atzerakoia den patriarkatua haren proposamenen aurrean⁶. Ez da kasualitatea; izan ere, feminismoak ezbaian jartzen ditu gizon eta emakumeen arteko botere-harremanak, desorekak, pribilegioak, bai eta horien euskarri diren egitura soziala, ekonomikoa eta politikoa ere. Baina batez ere, **politizatu egiten du norberaren burua, egunerokotasuna, auzitan jartzen gaitu gu guztiok**, kanporantz garena ez ezik, batez ere geure barnerantz zer garen berrikustera behartzen gaitu, goitik behera hartzen gaitu, eta horixe da proposamen feministaren ahal handienetakoa, baina baita konplexutasun handienetakoa ere, eraitsi nahi dugun sistema horren beraren kide garelako. Iraultza, modu horretara, ez da *hor kanpoan* gertatzen den zerbait; aitzitik, norberaren identitatea, harremanak eta bizitza berreraikitzea da iraultza horren abiapuntua. Horrenbestez, feminis-

moak munduan egoteko modu bat ekarri du emakume askorentzat⁷, geure burua ulertzeko, gure bizitzaren bidezidor estuak zabaltzeko eta gizarteak onargarri, posible eta desiragarri jotzen duen *status quo* hori hautsiz geure burua eraikitzeko modu bat.

Feminismoak, hainbat gunetan eraikitzen dela aintzat harturik (gizarte-mugimendu gisa, maila teorikotan, administrazio batzuetan...), gutxien-gutxienez bi norabidetan egin izan du eta egiten du lan: alde bate-tik, azaleratu, bistaratu eta **izendatu** egiten du desoreka, eta **auzitan** jartzen du *normaltzat* hartzen den errealitatea. Hau da, feminismoak kritikatu egiten du munduaren ikuskera androzentrikotik eredutzat hartu izan den hori, auzitan jartzen ditu emakumeen esku-hartzerik gabe eta askotan haien *gain* edo haien *aurka* eraiki diren ideia eta eraikuntza politiko, sozial, kultural horiek guztiak (garapena, ekonomia, demokrazia, ongizatea, familia, maitasun erromantikoa, etab.). Eta, bigarrenik, **beste aukera batzuk proposatzen ditu** "*eraikuntza handi*" horien guztien aurrean: emakumeek bizi eta beregana ditzaketan alternatibak.

Alde horretatik, ezinaren hurrengoa litzateke feminismoak gaur arteko ibilbide oparoan bereganatu dituen **kontzeptu, estrategia eta agenda** guztiak aurkeztea, ezta labor bada ere. Hala ere, funtsezko zen-

bait ideia hautatzekotan, honako hauek nabarmenduko nituzke:

1. **Sexua/generoa** kategorien eskutik (berrikusten ari dira horiek ere) “berezko izaera kendu” zitzea emakume izateari eta gizon izateari, eta sexu biologikoaren gainetik sozialki eraikitako generoa ezarri zen (beraz, halako eite moldagarria).
2. Bizitza eta espazioak (**publikoa eta pribatua**) sexu eta generoaren arabera zatikatu izana azaleratu zuen feminismoak, eta *lana* eta *enplegua* kategoriak auzitan jarri zituen, batez ere emakumeek prekarietate-egoeran eginiko lanak bistaratu: ugalketa-lana deritzona eta bizitzari eusteko lanak, nahita ikusezin bihurtuak.
3. Desorekak agerikoak diren esparru guztietan **desoreka horiek izendatzeko** baliatu izan diren kategoria guztiak (parte-hartze politikoa, gure gorputz eta sexualitateen gaineko eskubidea, enplegua eskuratzeko aukera, etab.), baita patriarkatuak emakumeen gain eragindako indarkeria mota guztiak azaltzeko ahalegina; alde horretatik, oso garrantzitsua izan da emakume askok bikotekidearen eskutik edo etxean jasan izan duten edo jasaten duten indarkeria bistaratzeko ahalegina.

4. **Aniztasunaren** ideia; izan ere, “emakumeaz” baino gehiago *emakumeez* hitz egiten da. Feminismoarentzat funtsezkoa da ulertzea nola patriarkatuak beste menderakuntza-sistema batzuekin batera jarduten duen, hala nola klase eta arrazaren kontura ezartzen direnekin, eta, orobat, oso garrantzitsua da ikusaraztea feminismoa proposamen mendebaldar, burges, heterosexual, zuri eta urbanotzat jotzen duten horiei proposamen eta ekimen feminista ugari daudela munduko alderdi eta errealitate guztietan.

Hain zuzen, menderakuntza-sistemen aniztasun eta elkarreragin horien artean, nagusietako bat aurrez aipatutako **kapitalismoak** eta **patriarkatuak** ezarritakoa da. Bene-benetako uztarria, emakumeen gain. Feminismoak hainbat ikuspegitatik aztertu du erlazio hori. Esan genezake gaur egungo “krisi” egoera aukera egokia izan daitekeela erlazio horren nondik norakoak hobeto ulertzeko; krisian zer dagoen auzitan jartzeko, aukerak zein diren jabetzeko (aukerak, ez soilik maila teorikoan baizik eta teoria hori maila praktikora eramanda) eta alternatiba horiek nola eta noren artean eraikiko ditugun zehazteko⁸.

Alde horretatik, feminismoak, eta batez ere ekonomia feministaren adar batzuek eta mugimenduaren alderdi batzuek, modu kritikoa berrikusi dute eko-

nomiaren ikuskera (alegia, zer den ekonomia) eta nabarmendu dute ekonomia ez dela soilik merkatuetan gertatzen dena eta diru-balioa duena; aitzitik, agerian utzi dute badirela bizitzari eusteko beharrezko beste lan asko, sarri askotan emakumeek doan eta itzalean egin izan dituzten eta egiten dituzten lanak, eta horiek merkaturatzen direlarik, modu prekarioan merkaturatzen direla. Alde horretatik, pentsamendu feminista kritikoaren zati handi batek auzitan jarri du zeri esaten diogun krisia, eta auzitan jarri ditu, halaber, krisi horren jatorria eta arrazoien azalpenak; pentsamendu kritiko horren ordezkari batzuek azpimarratu dute *krisia* ez dela finantza edo ekoizpen arlokoa, gizartearen egiturak berritzeko krisia baizik, eta, areago, horietako batzuek diote krisi sistemikoa dela, bizitzari eusteko gaitasunik ez duen sistema baten krisia. Hortaz, behar-beharrezkoa da ulertzea nola elkar hartzen duten menderakuntza-sistema batzuek eta besteek, eta zehatzagoak izanda, zeinen garrantzitsua den emakumeak mendean egotea logika kapitalisten funtzionamendurako.

Horren harira, egile batzuek honako hau arrazoitu dute: “Kapitalismoak, itxurazko paradoxa batean jausirik, izebergaren muturra –merkatuaren alderdiabaino ez du aztertzen eta aintzat hartzen; izan ere, egiaz, bere buruari eutsiko badio, emakumeek isilpe-

ko lan asko eta asko egin behar dituzte, ezinbesteko lanak bizi-prozesuei eutsi ahal izateko (...) Hala, kapitalismoak soilik lan horiei esker iraun dezake, baina aldi berean, gutxietsi egin behar ditu lan horiek, bere funtzionamenduaren logikari eusteko, produkzio kapitalistaren kostuak etxeko esferara bideratuz (Carrasco, 2001)⁹. Beraz, funtsezkoa da kapitalismoaren eta patriarkatuaren arteko aliantza hori aztertzea, eta, elkarreragin horri entzungor eginda, gaur egungo krisiari ematen zaizkion erantzunak eta konponbideak auzitan jartzea¹⁰.

Hori guztia aintzat hartuta, eta lehen puntu hau ixte aldera, ezin da zalantzan jarri feminismoa, jardun praktikoa eta teoria politiko gisa, eta gizarte-mugimendu gisa, iraultzailea izan dela milaka pertsonarentzat, askatasuna eta emantzipazioa lortzeko bidea izan baita haientzat, eta, orobat, gaur egungo eredu nagusiaren aurrean egiazko alternatibak planteatzen ari dela. Kontuan izan behar da, halaber, era askotako agendak, estrategiak eta antolatze moduak dituela feminismoak eta etengabe berrikusten eta eraikitzen duela bere burua. Hori dela eta, matxismoak hil egiten gaituela eta feminismoak bizitzeko eta borrokarako tresnak ematen dizkigula jakitun, ezin dugu ulertu feminismoa emantzipaziorik gabe; historiatic ikasgaiak atera behar ditugulako eta jabetu behar dugula-

ko proposamen feministak kontuan izan gabe eraiki nahi diren alternatiba guztiek –baita menderakuntza gainditu nahi dutenek ere– azkenerako patriarkatua eta emakumeen desoreka berritzen dutela; eta nola ez, ezin dugulako ulertu nola jardun dezakegun lehen eta bigarren mailako menderakuntzez eta nola egin dezakegun aurrera justiziaren eta berdintasunaren bidean, baldin eta ez badiogu patriarkatuari aurre egiten.

FEMINISMOAREN PRESENTZIA
BORONDATE ERALDATZAILEA DUTEN
ERAKUNDE MISTOETAN
ETA EMAKUME ZEIN FEMINISTEK
BERAUE TAN DUTEN PARTAIDETZA¹¹...

Hasteko eta behin, onartu egin beharko litzateke, ia premisa moduan, egoera aldatzeko borondatea duten erakunde mistoek (izan mugimendu sozialak, izan alderdi politikoak, izan sindikatuak...), tradizioz, emakumeen parte-hartzearen *aurkako jarrera* izan dutela. Alde horretatik, datuek argi adierazten dute emakumeek gutxiago parte hartzen dutela erakunde horietan, eragozpen espezifikoei egin behar dietelako aurre esku hartzeko eta erabakiak hartzen diren gunetara iristeko eta horietan mantentzeko, batez ere jarrera feminista, kritikoa eta ezarritako ordena auzitan jartzekoa baldin badute parte hartzerakoan; horrelakoetan, zailtasun eta oztopo erantsiak dituzte.

Horrenbestez, jabetzen gara gizonen parte-hartzea emakumeena baino handiagoa dela, eta gure iritziz, horren arrazoi nagusia da erakunde horiek, gure gizarteetan aldaketa sakonak sustatu arren, **partaide-tza politiko androzentrikoaren ikuspegitik** eraikita daudela eta (nahita edo nahi gabe) sistema patriarkala

berritzen dutela. Emakumeen *berezkotasunaz* jarduteko borondaterik gabe eta parte-hartze politiko “femeninoa” ulertzeko edo emakumeok parte hartzeko modu berezia dugun ala ez eztabaidatzeko asmorik gabe, eta, era berean, jakitun izanda badirela esperientzia interesgarriak beste era bateko erakunde eta militantzien eraikuntzan. Uste dugu, egiaz, espazio horiek tradizioz gizonezkoenak izan diren balio, jarraera eta roletatik eraikiak izan direla eta balio, jarrera eta rol horietarako; esfera publiko eta pribatuaren arteko erabateko disoziaziotik; maskulinitasuna ardatz eta oinarri izan duten erakunde-kulturetatik eta, azken batean, emakume askorentzat (baita eredu hegemonikoarekin bat ez datozen gizonezko batzuentzat ere) erosoak ez diren erakundeen definiziotik.

Alde horretatik, begirada oso bat egiten badiegu erakunde horiei, esan genezake desoreka hori esparru guztietan gauzatzen dela, agenda politikoan, parte hartzeko egitura eta espazioetan, iruditerian eta balio partekatuetan.

Agenda politikotik hasita, uste dugu zailtasunak daudela feminismoa lehen mailako proposamen politikotzat onartzeko. Hori horrela dela azaltzeko zenbait dinamika identifika ditzakegu: alde batetik, beste borroka batzuk eta, beraz, beste agenda batzuk lehenesten dira, modu inklusiboan guztiak lotzen ahale-

gindu beharrean. Hala, zaila da analisi eta agenda “ez sektorialak” eraikitzea; izan ere, esplizituki edo inplizituki subjektu itxiak definitzen dituzte agenda horiek, eta horrela, menderakuntza modu osoago batean jorratzea galarazten dute subjektu itxi horiek. Hori dela eta, joera da “agendako gai nagusiak” identifikatzea; hau da, gai politiko eta gatazka nagusiak (enplegua, inbertsioa, naziotasun gaiak, etab.), eta agenda feminista bigarren mailan geratzen da, *ondorenerako*.

Bestalde, ustea da agenda feminista erakundeko *emakumeena* eta *emakumeentzako* dela, eta ez eredu hegemonikoaren aurreko ikuspegi global alternatiboa. Onartu, onartzen da, sarri askotan batez ere diskurtso mailan, emakumeen eskubideak eta desoreken gaia landu behar direla eta agendan jaso behar direla, baina ez da ahaleginik egiten eta ez da baliabiderik jartzen erakundeen lehentasunezko gaitzat hartzeko, ez eta horrek agenda politiko osoan nola eragingo lukeen ulertzeko ere.

Azkenik, onarpen falta horren ondorioz edo onarpen partzial eta isolatu horren ondorioz, feminismoa hor geratzen da itzalpean eta ikusezin, politikoki zuzena jotzen den horren ondoan baztertuta, edo *egiazko gai estrategikoei* ez liekeela erantzungo arrazoitzen duten kritika lausoago edo argiagoen eskutik

ostenduta. Azkenik, gutxiespen hirukoitz horri konponbidea emateko, normalean ez da izaten egoera iraultzeko borondate politiko argirik, ez; hori baino konponbide errazagoa da prestakuntzaren eta pedagogiaren beharra etengabe aldarrikatzea, eta horren arduraren erakundeko emakumeen esku uztea, gehienguan horrela egiten baita. Alde horretatik, interesgarria litzateke estatistika bat egitea jakiteko ezkerreko erakundeetan pentsamendu politikoari buruzko liburuak irakurri eta bere burua prestatu duten zenbat gizonen artean militantek eduki duten esku artean egile feminista baten liburu bat.

Erabakiak hartzeko egiturei eta prozesuei dagokienez, erakundearen eguneroko jarduna nola kudeatzen den eta parte-hartzea nolakoa den aztertzen badugu, begien bistakoa da zereginen eta espazioen zatiketa eta hierarkizazioa dagoela emakumeen eta gizonen artean; aski da emakumeek zer leku betetzen duten eta zertan jarduten duten ikustea, horretaz jabetzeko. Nolanahi dela ere, kontuan hartu behar dugu alde nabarmenak daudela erakunde motaren, egituraketa mailaren eta funtzionatzeko moduaren arabera; erakundea sindikatua den, alderdi politikoa den edo gizarte-mugimendua den, diferentziak eta ñabardurak izaten dira batetik bestera. Normalean, botere-egituretan zenbat eta gorago, orduan eta gutxiago dira

emakumeak, eta, alde horretatik, eragin nabarmena du sexu berekoen arteko izendapen ez-formalen sistematik (gizonezkoak beste gizonezko batzuk sustatzen eta izendatzen). Nabarmena da zereginen banaketa ere, eta aurrez planteatutakoaren hari beretik, begien bistakoa da espazio eta eginkizun batzuk *maskulinoago* jotzen direla eta beste batzuk *femeninoago*.

Gainera, erabakiak hartzeko prozesuetan garrantzi handia dute espazio ez-formalek; horietan bideratzen dira erabakiguneetako posizioak eta zehazten dira aliantzak; emakumeek, ordea, zailtasun handiagoak dituzte horietara iristeko. Bai, erabakiak hartzeko prozesuetan izan badira jarraibide eta espazio formalak, baina aurrez, eremu ez-formal horietan, emakumeek ez dute informazioa eskuratzeko eta eragiteko aukera eta ahalmen bera izan.

Azkenik, denbora, dedikazio eta energia aldetik bete-betean aritzea eskatzen duten jardunak dira militantzia eta parte-hartzea, espazio eta denbora aldetik mugarik izan gabe, eta, beraz, biztanleen zati batek baino ez du horretarako aukera. Emakumeen kasuan, nabarmenago azaleratzen da nahi eta ezin hori, militantziako gune horietan egoteko borondatea izan bai, baina eguneroko bizitzak eta bete-betean besteak zaintzen jardun beharreko zikloek ezartzen duten ezintasun hori.

Eta hirugarrenik, diagnostikoa zehazteko zenbait elementuren azaleko analisi honekin amaitzeko, erakunde misto horietako militante eta pertsonak **partekatzen dituzten balioak edo iruditeriak** leudeke; egile batzuek, erakundeen kultura esaten diote horri¹². Hor sartzen dira lidergoen eraikuntza, komunikazio-estiloak, “militantzia onaren” ezaugarriak, edo erakundeek nola ulertzen eta kudeatzen duten aniztasuna eta barneko kritika. Geure buruari galdetu beharko genioke erakundeen arabera zer ezaugarri izan beharko lituzkeen lider batek, askotan, politika ulertzeko eta egiteko modu batekin lotzen baitira ezaugarri horiek eta maskulinotasun hegemonikoaren eredutik hurbil dauden ustezko tasun batzuekin (lehia, segurtasuna, indibidualtasuna), eta, orobat, jabetu beharko genuke komunikazio-estilo jakin batek (hegemonikoa hori ere) sendotu egiten duela aurrez aipatutakoa (badira oso azterlan interesgarriak gizonezkoek eta emakumezkoek bileretan edo batzarretan nola parte hartzen duten, nola erabiltzen dituzten denborak eta hitza, zer balorazio eta garrantzi ematen zaion eskuhartze bakoitzari...). Azkenik, interesgarria da aztertea erakundeek nola sortzen duten “militantzia onaren” eredu bat, nola kudeatzen duten aniztasuna eta barneko kritika; kasu honetan, kritika feminista. Batzuetan, proiektu politikoarekiko “desleial” izatea

egozten zaie kritika horiei, eta, nahita edo nahi gabe, erakundeko emakumeak zatitzeko estrategia patriarkalak jar daitezke martxan; sortzen duten norgehiagoka eta gatazka mailaren arabera, feminismo onargarria eta baztergarria bereizten duten estrategiak.

GOGOETARI ETA EZTABAIDARI BIDE EMATEN JARRAITZEKO ZENBAIT IDEIA...

Aurreko puntuetan, labur-labur halabeharrez, feminismoaren funtsezko zenbait elementu erakusten saiatu gara, baita egoera aldatzeko borondatea duten erakundeetan parte hartzeko eta agenda feministari lekua egiteko izan daitezkeen eragozpen eta korapilo batzuen berri ematen ere. Jakina, dena ez da negatiboa, badira elkarguneak, badira modu alternatiboan eraikitzen ari diren erakundeak, beren agendetan eta jardunetan feminismoa aintzat hartzen duten mugimenduak... Gaude, ordea, sarri askotan, ematen diren erantzunak partzialak direla, ahalegina egiten dela zenbait neurri “zuzentzailereren” bidez emakumeen parte-hartzea sustatzeko eta agenda feministaren zenbait gai aintzat hartzeko, baina ez dela gaiaren muinera jotzen; izan ere, gure ustez, gaiaren muina da gizon eta emakumeok elkarrekin, eroso, berdintasunean, bizi eta partekatzeko erakundeak eraiki behar ditugula; erronka handia da hori, baina baita aukera paregabea ere.

Hala, erakundeen ardatzetako bat bihurtu behar dugu feminismoa eta estrategia bat sendotu behar dugu horretarako. Alde horretatik, uste dugu **hiru**

hauek direla prozesu horietan aurrera egiteko **ga-koak**:

Onartzea eta ohartzea: Feminismoa gure erakunde- en egitura guztietara zabaldu beharra dagoela. Gure agenda eta egituren gain ikuspegi osoa izan behar dugula, feminismoa benetan lerro nagusian egoteko estrategiak jarri behar ditugula martxan. Erantzun itxirik ez dagoela, baina honako maxima hauek zehaz- ten joateko borondatea eta konpromisoa, aldiz, egon badagoela: “iraultza feminista izango da edo ez da izango” eta “kapitalismoak eta patriarkatuak batera erori behar dute”. Emakumeak ahalduntzeko jardun politikoa sustatzea ezinbestekoa dela gure erakundee- tan, horrek emango baitugu aukera guztion ahaldun- tzea ekarriko duten jardunak eraikitzeko.

Sormena: Beharrezkoa da elkarrekin irudimenari bide ematea eta, batzuetan zer esparru estuetan mugitzen garen jabeturik, muga horiek gaindituko dituzten erakundeak eraikitzea. Etxeak goitik behera aldatu behar ditugu, bete-betean heldu behar diogu egiten eta esaten diogunari ez ezik, moduei, berregin egin behar ditugu erakundeen kulturak. Eta horretar- rako, zeregin konplexua izan arren, sakon berrikusi behar ditugu bai gure lehentasun politikoak eta agen- dak, bai gure egiturak, parte hartzeko, komunikatze- ko eta erabakiak hartzeko moduak, etab. Emakumeak

eta gizonak eroso eta berdintasunean bizi daitezkeen erakundeak eraiki behar ditugu. Eta horretarako, guztion artean gure etxeak nolakoak izatea nahi dugun zehazteko eta erabakitzeko guneak behar ditugu, jakinik aurreko alderdi batzuk baliagarri izan ditzakegula baina seguru asko zer edo zer berria eraikitzeke erronkari egin beharko diogula aurre. Gaude, feminismoak funtsezko gakoak emango dizkigula horretarako.

Aliantzak: hitzari benetako edukia eman eta alianztzak sendotu behar ditugu hiru noranzkotan: feministen artean, erakundeetan bertan; mugimendu eta erakunde feministekin; eta beste aliantza zabalago batzuk, kapitalaren eta pribatizazioaren logikari uko egin eta bestelako balioak (bizitzaren iraunkortasuna; parte-hartzea eta demokrazia berriro definitzea eta egunerokotasunaren politizazioa) lehenesten ditugun mugimendu, pertsona eta erakundeok bat egingo dugun alianztak. Lan eskerga da, gune horiek zehaztu behar dira, noren artean egingo dugun erabaki behar da, edukiak, moduak... Aurreko egituratze-esperientzietatik ikasgaiak atera behar dira eta, nola ez, gune feminista autonomoen eta espazio mistoetako feminismoaren arteko elkarguneak sendotu behar dira.

Espero dugu testu hau baliagarri izango dela bideak zehazten jarraitzeko, modu kolektiboan eta feministok

elkar hartuta, aurrera begira beste bizitza batzuk eta bestelako erakunde batzuk izan daitezten, eta pozez esan dezagun, horiek bai, bizitzea merezi dutela.

OHARRAK

- 1 Emantzipaziotzat jotzen dugu “botere, aginte, tutoretza edo bestelako edozein menderakuntzatik edo mendekotasunetatik askatzea”.
- 2 Informazioa zabaltzeko: <http://www.mujiresen-red.net/spip.php?article1308>
- 3 Informazioa zabaltzeko: <http://www.mujiresen-red.net/spip.php?article1396>
- 4 Horrelako eraldaketa baten aurrean, era guztietako mitoak eraiki dira feminismoaren inguruan, eta, azken-azkenean, horien xedea da gizon eta emakumeen artean desorekak daudela auzitan jartzea. Hauek dira, mantren modura errepikatutak, mito horien adibide batzuk: feminismoa matxismoa bezalakoa dela baina alderantziz, ulertu nahi ezik feminismoa sexismoaren kontrako borroka dela, pertsona bat, sexu batekoa izateagatik, bestea baino gehiago delako ideiaaren aurkako borroka; emakumeak garelako matxistetan matxistenak, errua zuzenean emakumeei egotziz eta gizonezkoek dituzten pribilegioak ikusezin bihurtuz; feminismoa zaharkiturik geratu dela, beste garai bateko borroka dela, modu horretara ezkutuan utziz, alde batetik, desorekak daudela, patriarka-

tua menderakuntza-sistema bizia eta odoltsua dela oraindik ere eta, bestetik, mugimendu feministaren agenda eta mugimendu horrek kaleetan duen presentzia ere zokoratuz; edo, iritzi kontua besterik ez dela, gu guztion esperientzia pertsonala, gure generoari agindutakoak bizitzeko modua mundua ulertzeko erreferentzia baliagarri bihurtuz, eta feminismoak esperientzia hori interpretatzeko eman dizkigun gakoak ez onartuz; azken batean, feminismoa jakintza dela ukatuz.

- 5 Anabel Sanz eta Tere Maldonadoren testua, <http://www.hegoa.ehu.es/congreso/bilbo/doku/lau/ResumenMFeminista.pdf>
- 6 “Neomachismos, nuevos ataques, nuevas respuestas”, Ana Burgos eta Miriam Solaren testua, hemen eskuragarri: <http://www.feministas.org/neomachismos-nuevos-ataques-nuevas.html>
- 7 Horrela azaldu izan du Viviana Erazok (“Feminismo para principiantes” lanetik ateratako hitzak): “milioika emakumerentzat feminismoa norberaren biografia eta egoeratik besterendu ezineko astinaldia izan da; gizateriarentzat, berriz, emakumeen ekarpen kolektibo handiena. Kontzientziak eragin zituen, indibidualtasunak birplanteatu

zituen eta munduan egoteko modu bat irauli zuen, batez ere emakumeen artean”.

- 8 “Gaur egun, patriarkatua eta kapitalismoa botere-erlazioen unitate bat dira eta, beste desoreka-ardatz batzuekin batera (etnia, adibidez) beren interesen arabera eraldatu dituzte genero-rolak, gizon eta emakumeak desjabetzeko prozesuak, zaintza, lan desberdinak, familia motak, etab. Hau da, bizitzaren esparru ugariak. Horregatik, gaur egun oso garrantzitsua da ohartzea gizartearen konplexutasuna eta ustiaketa, menderakuntza, azpiratze edo zanpaketa erlazio askotarikoak patriarkatuaren, kapitalismoaren, arrazakeriaren eta bestelako bazterketa moduen ondorioz sortuak direla”.

Amaia Pérez Orozco, “Feminismo anticapitalista, esa Escándalosa cosa y otros palabros”,

<http://rebellion.org/noticia.php?id=104450>

- 9 Fernández, Piris eta Ramiro egileen “Cooperación internacional y Movimientos sociales emancipadores: bases para un encuentro necesario” lanetik ateratako erreferentzia, hemen eskuragarri: <http://biblioteca2012.hegoa.efaber.net/registros/19540>.

- 10 Gure iritziz, interesgarria da erantzun posible horietako batean sakontzea; uste dugu ezker klasikoenean sarri erabili izan dela erantzun hori, estrabismo produktibista izenda genezakeena (Orozco, “De vidas vivibles y producción imposible”), hemen eskuragarri: <http://www.decrecimiento.info/2012/02/de-vidas-vivibles-y-produccion.html>). “Ikuspegi horren oinarrian ekonomia errealak finantza-kapitalarekiko agertzen duen mendekotasunari eginiko kritika gordina dago. Ikuspegi horren ardatza produkzio-prozesua eta horri loturiko elementuak: lana (ordaindua), ordainsaria, kontsumoa, horri erantsitako eskaria, inbertsioa, gastu publikoa, etab. Begirada horrek merkatuei loturik jarraitzen du, ondasun eta zerbitzuen merkatuari hain zuzen, eta ez finantza-merkatuei”. Krisitik aterako bagara, funtsean, produkzio- eta kontsumo-mailak berreskuratzea da bidea, gure ustez egungo krisiaren oinarrian dauden zutabe nagusiak ukitu gabe. Hau da, konponbidearen funtsa da erantzunak eraldatzea eta ez horrenbeste galderak eta helburuak berriro pentsatzea.
- 11 Gaiaren konplexutasuna eta zabaltasuna aintzat hartuta, jasotako ideiak hausnarketak baino ez dira, mamitze-prozesuan dauden hausnarketak, eta ez gai itxiak eta behin betikoak.

- 12 Natalia Navaroren iritziz, hau da erakundeen kultura: “Erakunde baten barnean partekatzen diren iritziak dira, eta horien arabera sortzen diren aurreikuspenek zehazten dute zer onartzen den eta hartzen den aintzat erakundearen funtzio-namenduan, eta, orobat, erakundean zer den femeninoa eta zer maskulinoa definitzen dute”.

ERREFERENTZIAK (LIBURUAK, ARTIKULUAK, BIDEOAK)

- Álvarez Molés, Pili, Movimientos sociales, relaciones de género y cultura. El caso de los gaztetxes en la CAPV.
http://www.gipuzkoagazteria.net/gestor/nodos/nodo_dok_din/Relaciones_de_genero_y_cultura_en_gaztetxes_de_la_CAPV.pdf
- Biglia, Bárbara, Transformando dinámicas generizadas. Propuestas de activistas de movimientos sociales mixtos.
<http://ddd.uab.cat/pub/athdig/15788946n4/15788946n4a1.pdf>
- Cal, M^a Luz de la; Jubeto, Yolanda eta Mertxe Larrañaga: Análisis de los trabajos en España desde un enfoque de género: transformaciones y retos, hemen eskuragarri:
<http://riemann.upo.es/personal-wp/congreso-economia-feminista/files/2013/10/Cal-Jubeto-Larra%C3%B1aga.pdf>
- Carrasco, Cristina, El cuidado de la vida de las personas, una responsabilidad social y política fundamental

https://www.fuhem.es/media/cdv/file/biblioteca/revista_papeles/127/Entrevista_a_Cristina_Carrasco_O.Abasolo_L.Vicent.pdf

- Federici, Silvia: Elkarrizketa Pikara Magazine agerkari digitalean, hemen eskuragarri:

<http://www.pikaramagazine.com/2012/06/%E2%80%9Cdesvalorizar-el-trabajo-reproductivo-de-las-mujeres-ha-destruido-nuestra-relacion-con-la-tierra%E2%80%9Dentrevista-a-silvia-federici-activista-especializada-en-trabajo-domestico-reproductiv/>

- Fernández, Piris eta Ramiro, Cooperación internacional y Movimientos sociales emancipadores: bases para un encuentro necesario, hemen eskuragarri:

<http://biblioteca2012.hegoa.efaber.net/registros/19540>

- Grenzner, Joana, Feminismos en el 15m: un año revolucionando la resistencia a los ajustes estructurales

<http://www.pikaramagazine.com/2012/05/feminismos-en-el-15m-un-ano-revolucionando-la-resistencia-a-los-ajustes-estructurales/>

- Gimeno, Beatriz: Ser feminista en un partido político (mi experiencia), Pikara Magazine agerkarian argitaratutako artikulua, hemen eskuragarri:

- <http://www.pikaramagazine.com/2014/05/ser-feminista-en-un-partido-politico-mi-experiencia/>
- León, Magdalena: Redefiniciones económicas hacia el buen vivir: un acercamiento feminista, *hemen eskuragarri*:
<http://www.fedaeps.org/spip.php?article486>
 - Navarro, Natalia: Desigualdades de género en las organizaciones. Procesos de cambio organizacional pro-equidad, *hemen eskuragarri*: <http://americallatinagenera.org/newsite/images/documents/CAMBIOORGANIZACIONALPNUD.pdf>
 - Pérez Orozco, Amaia: ¿Hacia una economía feminista de la sospecha?, *hemen eskuragarri*:
<http://pendientedemigracion.ucm.es/info/ec/jec8/Datos/documentos/comunicaciones/Feminista/Perez%20Amaia.PDF>
 - Pérez Orozco, Amaia: Subversión feminista de la economía. Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida, *hemen eskuragarri*:
<http://www.traficantes.net/libros/subversion-feminista-de-la-economia>
 - Varela, Nuria: Feminismo para principiantes,
<http://nuriavarela.com/libros/feminismo-para-principiantes/>

- (Bideoa) Yayo Herrero: Propuestas ecofeministas para transitar a un mundo justo y sostenible, hemen eskuragarri:

<https://www.youtube.com/watch?v=Eq-jysIgnIs>

- (Bideoa) Emakumeen Mundu Martxa, Kongoko Errepublika Demokratikoan gauzatutako ekimena:

http://www.dailymotion.com/video/xj1kdk_marcha-mundial-de-las-mujeres-rd-del-congo_news.